

2020. Prezio publikoak. 2019ko abenduaren 10ean Bermeoko Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.

UDAL BALIABIDEAK UZTEAREN PREZIO PUBLIKOAK ETA FIDANTZAK ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru-Arauaren 44. artikulutik 50.era ezarritakoarekin bat etorrita eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua eta honekin bat datozenen arabera, udal baliabideak uztearen prezio publikoak eta fidantzak ezarri eta eskatuko dira ordenantza honetan jasotako arauen arabera.

2. artikulua

Udal zerbitzuaren edo jardueren ezaugarriak dira ordaintzera behartuta dagoenarekin bereziki lotuta egotea hareri eragin eta laguntzen deusolako eta baldintza hauek betetzen direlako:

- Administratuek euren borondatez eskatu edo jaso dute.
- Zerbitzu edo jarduerak sektore pribatutik ere eskaintzen dira.

II.- ORDAINTZERA BEHARTUAK

3. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzera behartuta egongo dira zerbitzu edo jardueretatik onura jasotzen dituztenak, hau da, zerbitzua edo jarduera eskatuta ematen direnak.

4. artikulua

Eskatzailea nor den kontutan izan barik, ekintza bera irabazi asmo bakoa denean prezio publikoa ordaintzea salbuetsita egongo da.

III- ZERGAPEKO ZERBITZU EDO JARDUERAK

5. artikulua

Udal baliabideak uzteko zerbitzu edo jarduera hauek eskaintzearen truke ordaindu beharko dira honako prezio publiko hauek:



Epigrafeak	Tarifak (€)
1.- Plastikozko hesia, unitatea	4,72
2.- Burdinezko hesia, unitatea	3,98
3.1- Plastikozko mahaia, unitatea	12,72
3.2- Plastikozko mahaia FRONTOIRAKO, unitatea	14,00
4.1- Egurrezko mahaia eta bere astoak, unitatea	12,72
4.2- Egurrezko mahaia eta bere astoak FRONTOIRAKO, unitatea	14,00
5.1- Egurrezko aulkia, unitatea	2,15
5.2- Egurrezko aulkia FRONTOIRAKO, unitatea	2,41
6.- Konoa, unitatea	1,47
7.1- 4 modulu arteko tarima eta eskailera	166,23
7.2- 4 modulu arteko tarima eta eskailera FRONTOIRAKO	191,90
8.1- Eskenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera	457,11
8.2- Eskenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera FRONTOIRAKO	482,76
9.1- Eskenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera	1010,82
9.2- Eskenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera FRONTOIRAKO	1060,43
10.- Frontoiko zoruaren babes goma-alfonbra	143,66
11.- Proiektorea	17,76

6. artikulua

Tarifen arabera prezio publikoaren kontura eskatu ahal izango diren kopuruak eskatutako edo emandako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta tarifa bakoitzerako adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

IV.- ORDAINTZEKO BETEBEHARRA SORTZEA

7. artikulua

Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten den unean sortzen da ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra.

V.- KUDEAKETA

8. artikulua

Zerbitzua edo jarduera eskatzeko era gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako eskaera orria aurkeztea izango da (IN-138). Bertan argi zehaztu beharko da ondasun mota eta kopurua.



9. artikulua

Eskatzaileak, udalak zerbitzua emango deusionaren erabakiaren jakinarazpena hartzen duen egunetik hasita, egun biko epean, eta beti ere, ekintzari hasiera eman aurretik, prezio publikoaren autolikidazioa aurkeztu beharko du [Berhaz](#) bulegoan. Ordaintzaren froga agiria aurkeztu ezean eta erabakian bertan adierazitako bestelako baldintzak bete ezean, ekimena bertan behera geratuko da eta baimen baldintzatua indargabetu egingo da, betepen faltagatik.

Autolikidazioa ordaintzeko epea aurkezten denetik 10 egunekoa izango da. Epean ez ordaintzean premiamenduzko prozedura aplikatuko da.

10. artikulua

Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezinezko arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera eman edo garatzen ez bada, ordaindutako zenbatekoa itzuli egingo zaio.

VI.- FIDANTZAK

11. artikulua

Ordenantza honetan aitaturako udal ondasunak uzteagatik, prezio publikotik aparte, fidantzak ere eskatuko dira eta gune eta eraikin publikoetan ekimenen antolaketaren prozesuan aurreikusitako epean edo momentuan aurkeztu/ordainduko ditu eskatzaileak.

12. artikulua

Uzten diren ondasunen kopuruaren arabera fidantzen zenbatekoak honako hauek izango dira:

Ondasuna	Kopurua	Fidantza
1- Plastikozko hesiak	1tik 20ra	87,12
	1etik 21era edo gehiagora	261,36
2- Burdinezko hesiak	1tik 20ra	48,58
	1etik 21era edo gehiagora 50eraino	145,74
	1etik 51era edo gehiagora 90eraino	291,49
3- Plastikozko mahaiak	1etik 10era	211,65
	1etik 11ra edo gehiagora	423,3
4- Egurrezko mahaiak euren astoekaz	1etik 10era	211,65
	1etik 11ra edo gehiagora	423,3
5- Egurrezko aulkiak	1etik 30era	55,9
	1etik 31ra edo gehiagora 60eraino	139,76



	1etik 61era edo gehiagora 90eraino	223,61
	1etik 91era edo gehiago	279,51
6- Konoak	1etik 30era	24,1
	1etik 31ra edo gehiagora 60raino	60,26
	1etik 61era edo gehiagora 90eraino	96,41
	1etik 91era edo gehiago	120,52
7- 4 modulu arteko tarima eta eskailera		195,54
8- Eszenatoki txikia (16 modulu arte) eta eskailera		391,07
9- Eszenatoki handia (32 modulu arte) eta eskailera		977,68
10- Frontoiko zoruaren babes goma-alfonbra		0
11- Proiektorea		35,00

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan xedatutakoa aplikagarria izango da ere gune eta eraikin publikoak ez diren tokietan antolatutako ekimenetarako udalak utzi dezakeen ondasunentzat.